

**Bartzelonako Euskal Etxeak
antolatutako**

III. EH Sona lehiaketa



OINARRIAK

1) Euskaraz abestu eta EH Sona jaialdian inoiz parte hartu ez duten talde eta bakarleri orok parte har dezake lehiaketan. Ez da inolako mugarik jarriko musika estiloari dagokionez.

2) Saria Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duen EHSona 2013 jaialdiaren barnean kontzertu bat eskaintzea Bartzelonan, **Razzmatazz** aretoan **ZEA MAYS** taldearekin batera. Euskal Etxeak bere gain hartuko ditu taldearen bidaia, loa eta afari gastuak.

3) Lehiaketan parte hartzeko gutxienez hiru abesti bidali beharko dira.

4) Lehiaketaren egutegia hau izango da:

-Uztailaren 18tik irailaren 28ra: lehiaketara aurkezteko epea

-Urriaren 1ean: irabazlea jakinaraziko da.

-Azaroaren 21ean: kontzertua.

5) Kontzertua gutxienez 30 eta gehienez 50 minutukoa izan beharko da.

6) Abestiak formatu digitalean bidali behar dira eta Bartzelonako Euskal Etxeak bere webgune eta blogean erabiliko ditu lehiaketa eta kontzertuaren berri emateko.

7) Epaimahaia Euskal Herrian eta Bartzelonan musika munduan lan egiten duten hainbat lagunek osatuko dute.

8) Parte hartzaileek jabetasun intelektualari buruzko indarrean dagoen legediarekiko edozein lege-hauste ez dela antolatzaileen ardura baieztatzen dute.

9) Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

10) Antolakuntzak, ezinbesteko baderitzo, oinarri hauetan aldaketak egin ahalko ditu eta behar bezala jakinaraziko ditu.

11) Informazio gehiago eta lanak bidaltzeko:

Bartzelonako Euskal Etxea
Centre Cultural
Placeta Montcada 1-3 08003
(Entrada per Arc de Sant Vicenç)
Bartzelona

kulturabcn@euskaletxeak.org

<http://www.ehsona.com>
<http://www.euskaletxea.cat>
<http://blog.euskaletxea.cat>